

Carlos Santa Maria liburutegia, ezagutzaren gordailu biribila

Maiz txuria neutraltasunarekin lotu badezakegu ere (alegia, diskretua izateko nahiarekin), inguratzen duen harresitzar horrek beste nozio bat aditzeraematen du, anbiguoagoa. Oskol zuri erraldoi batez inguratuta dagoen barnealde preziatua? Ezagutzaren gordailu berria den honek, bere presentzia aldarrikatzeko arazoak ditu.

Jakintza eta informazioaren garaian bizi garen honetan, hura eskuratzeak ematen digu askotan abantaila lehiakorra; horra hor jakitun izatearen prezioa. Are gehiago, zenbaitzuek industria iraultzaren pareko momentuetan kokatzen dute egungo egoera, jakintzaren iraultzak mugitzen du gure egungo sarean lotuta dagoen mundua. Globalizazioko network/sare hiriak denbora eta espazioa konprimatu du, eta informazioa abiada bizian elkarbanatzen dugu, zuzenean digeritu ere, zaporeaz jabetu gabe. Denok sortzen dugu jakintza etxeko sofan eserita.

Ondo, honen kontziente delaematen du XXI. mendeko liburutegi edo Dokumentazio Gune Aurreratua den honek. Horrexegatik agertzen zaigu itxia, zurruna, nabarmena eta garbia, biribila, deskonektatua, saretik at balego legez. Badakielako zer gordetzen duen eta zer elkarbanatu nahi duen. Patxadaz pentsatu, ikertu, komunikatu eta lanerako gunea izan nahi baitu. Informazio aroko zitzu biziaren bidean geldiune babestua eta, dirudienez, ikerketaren aldeko apusturako gunea. Hormatxuri zurruna, oihal bilakatzen da mugimendu arin batez, punturik publikoenean, barnealderako sarrera adierazten duenean. Hortxe dago bidea, aukera eta erronkarako probokazio teatrala.

ERAIKINAREN DISEINU GARBITASUNA

Barrutik kanpora pentsatua izan den eraikina, kalearekin banatzen/lotzen duen harresiak du ia garrantzirik handiena. 25zm-ko lodiera duen horma bere burua eusteko gaitasuna duen hormigoizko egitura da eta partzelaren kurba islatzen duen marrazkian du jatorria. Barneko solairuak egituratzen dituen piezekiko independentea denez gero, inolako juntarik gabe altxatzea posible izan da. Hala, ez dio mugimendurik transmititzen barnealdeari eta gainera azal jarrai bat da, oskol isolatzaile bikaina.

Esan bezala, Tolosa Etorbideko errotonda parean eten egiten da horma eta negutegi bat osatzen da sarreran; udarako beroa kanporatzen utzi eta neguan berriz hura biltzeko gaitasunaz baliatzeko pentsatua. Campusa osatzen duten bi adarren arteko giltzadura edo artikulazioa da, batzuen ustez, errotonda alboko kokapen horrek ematen dion izaera. Barrualdea egituratzen duen bigarren elementu nagusia dugu, barneko kalea deritzona. Patio honek eraikina bi bolumenetan banatzen du eta argitasuna sartzen du irakurgela zein bulegoetara. Zurez estalia dago patioko fatxada zein zoladura, hemen erematerial jarraitasuna erakutsiz. Kale honek barneko kanpoa izan nahi du, lasai egoteko atsedene- gune isolatua.